**2014ko azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUA, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.**

ARAUGINTZAKO EBALUAZIO TXOSTENA

**1.- Sarrera.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 6.4 artikuluak xedatzen duenez, foru arauek Batzar Nagusien araugintza ebaluatzeko prozedura bete behar dute, indarrean sartzen direnetik urtebete igarotzen denean. Horretarako, epe horren hurrengo 2 hilabeteen barruan, Foru Aldundiak txosten bat bidali behar die Batzar Nagusiei ondorengo hauek bilduz: delako foru arauaren aplikazioan izan diren arazoak; sortutako ondorioak; lortutako helburuak; proposatutako helburuen eta lortutakoen arteko lotura; arauaren benetako betetzea; araugintza garatzeko beharrak; eta judizializazio kasuak.

2014ko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Araua, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa, 2014ko azaroaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (222. zk.) argitaratu zen; eta egun horretan bertan jarri zen indarrean, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera edo 2014ko ekitaldia ixten zenetik aurrera aplikatu beharreko xedapen batzuk izan ezik.

Horrenbestez, indarrean jarri zenetik urtebete igaro denez, txosten hau egin da 6/2005 Foru Arauak 6.4. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

**2.- Araua onartzearekin lortu nahi diren helburuak.**

Bere hitzaurrean azaltzen denez, 13/2014 Foru Araua onartzearekin zera lortu nahi da: Gipuzkoako udalerriek lortutako toki autonomia altua babestea eta bermatzea, iritzita Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko 2013ko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak jasotako neurriek nabarmen ahultzen zutela toki autonomia hori. Helburu hori izanda, 13/2014 Foru Arauak finkatzen du noraino iristen den foru sistemaren berezitasuna Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Administrazioari dagokionez; eta bere artikulu ezberdinetan zehazten du berezitasun horrek nola mugatzen duen estatuko

**NORMA FORAL 13/2014, de 17 de noviembre, sobre la singularidad foral en la aplicación de las medidas de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.**

INFORME DE EVALUACIÓN NORMATIVA

**1.- Introducción.**

Conforme dispone el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales al año de su entrada en vigor. A tal efecto, dentro de los 2 meses siguientes, la Diputación Foral remitirá un informe sobre los siguientes extremos: problemas que se han producido en la aplicación de la norma foral de que se trate; efectos producidos; objetivos alcanzados; correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados; cumplimiento efectivo de la norma; necesidades de desarrollo normativo y casos de judicialización.

La Norma Foral 13/2014, de 17 de noviembre, sobre la singularidad foral en la aplicación de las medidas de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 222 de 20 de noviembre de 2014 y entró en vigor el mismo día de su publicación, salvo algunas de sus previsiones para las que se disponía que se aplicarían a partir del 1 de enero de 2015 o a partir del cierre del ejercicio 2014.

Por tanto, transcurrido un año desde su entrada en vigor, se emite el presente informe, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005.

**2.- Objetivos propuestos con la aprobación de la norma.**

Tal y como se explica en su preámbulo, el objetivo propuesto con la aprobación de la Norma Foral 13/2014 es preservar y garantizar las altas cotas de autonomía local alcanzadas por los municipios de Gipuzkoa, autonomía local que se entendía notablemente debilitada por las medidas contempladas en la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local. Para ello, la Norma Foral 13/2014 establece el alcance de la singularidad foral en relación con la Administración Local del Territorio Histórico de Gipuzkoa y concreta a lo largo de su

ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F 2016-01-29T13:10:25Z

araudian jasotako neurrien aplikazioa.

### 3.- Judizializazio kasuak.

Hasteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian diren administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aipatu behar dira, Estatuko Administrazioak aurkeztutakoak biak:

- Batetik, 27/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, 13/2014 Foru Arauaren aurka jarritakoa: bozketa eta epaitzarako eguna jartzeko zain.

- Eta, bestetik, 476/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, ebaluazio honen xede den foru arauaren 5.1 artikuluan ezarritako mandatua betez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazteko onartu zen 2015eko ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Arauaren aurka jarritakoa: demandari erantzuteko epean dagoena.

27/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, 13/2014 Foru Arauaren ondorengo xedapenak deusez deklara ditzala eskatzen dio Estatuko Administrazioak auzitegiari:

- 1. artikuluaren (toki araubideko foru sistemaren berezitasuna) 4. atala: udalerrien mankomunitateek bereganatu eta erabili ditzaketen eskumenei buruz ari dena.

- 2. artikuluaren (2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena, aldatzekoa) bi, hiru, bost eta sei atalak, ondorengo hauei buruzkoak: gastu araua betetzen ez duten toki entitateek hartu beharreko zuzentzeko neurriak; plan ekonomiko-finantzarioak; birdimentsionatze neurriak Gipuzkoako toki sektore publikoari aplikatzeko berezitasuna; eta merkataritzako toki sozietateen eta enpresa-entitate publikoen sorrera.

- 3. artikuluaren (2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki

articulado cómo determina dicha singularidad la aplicación de las medidas previstas en la legislación estatal.

### 3.- Casos de judicialización.

Es necesario mencionar, en primer lugar, los dos procesos contenciosos que se siguen en el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, como consecuencia de sendos recursos interpuestos por la Administración del Estado:

- Por un lado, el recurso contencioso-administrativo nº 27/2015 interpuesto contra la propia Norma Foral 13/2014, que actualmente está pendiente de señalamiento de día para votación y fallo.

- Y, por otro, el recurso contencioso-administrativo nº 476/2015 interpuesto contra el Decreto Foral-Norma 1/2015, de 30 de junio, por el que se determinan los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que se aprobó para dar cumplimiento al mandato previsto en el artículo 5.1 de la norma foral objeto de evaluación. Dicho recurso se encuentra en estos momentos en fase de contestación a la demanda.

En el recurso contencioso-administrativo nº 27/2015, la Administración del Estado solicita que se declare la nulidad de los siguientes preceptos de la Norma Foral 13/2014:

- El apartado 4 del artículo 1 (singularidad del sistema foral de régimen local), relativo a las competencias que pueden asumir y ejercer las mancomunidades de municipios.

- Los apartados dos, tres, cinco y seis del artículo 2 (modificación de la Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa), relativos a las medidas correctivas a adoptar por las entidades locales de nuestro territorio en caso de incumplimiento de la regla de gasto, los planes económicos-financieros, la singularidad en la aplicación de las medidas de redimensionamiento al sector público local de Gipuzkoa y la creación de sociedades mercantiles y entidades públicas empresariales locales.

- El apartado tres del artículo 3 (modificación de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre,

2016-01-29T13:10:25Z
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

entitateen aurrekontuei buruzkoa, aldatzekoa) hiru atala: hornitzaileei ordaintzeko epeari buruzkoa.

- 4. artikulua (1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena, aldatzekoa) eta xedapen gehigarri bakarra (hornitzaileei ordaintzeko mekanismo berezia): toki entitateen zorpetzeko araubideaz ari diren neurrian.

- 5. artikulua (toki korporazioetako kideen eta Toki Administrazioaren eta bere sektore publikoaren zerbitzupeko langileen ordainsariak).

- Eta 6. artikuluaren (berezko eskumenak eta eskuordetzan emandakoak ez diren eskumen berriak erabiltzeko txostenak eskatzea eta egitea) 2. atala: artikulu horren ondorioetarako eskumen berrien erabilpentzat zer ez den hartuko azaltzen duena.

Bestalde, 476/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan zera eskatzen dio Estatuko Administrazioak auzitegiari: deusez deklara ditzala 1/2015 Foru Dekretu-Arauaren artikulu bakarrean jasotako taulako azken bi tarteak (2.001etik 5.000 biztanlera bitarteko udalerriei eta 2.000 biztanle arteko udalerriei dagozkienak), ulertzen baitu tarte horiek ahalbidetzen dutela Gipuzkoako Lurralde Historikoan 1.000 biztanletik behera dituzten udalerrietako toki korporazioetako kideek erabateko dedikazioa izatea eta horren araberako ordainsariak jasotzea, nahiz eta estatuko oinarrizko legeriak horrelakoetan dedikazio partziala soilik onartu.

**4.- 13/2014 Foru Arauaren aplikazioan izan diren arazoak.**

Orain arte ez da arazo adierazgarririk sumatu 13/2014 Foru Araua aplikatzerakoan, kenduta aurreko 3. puntuan azaldutako judizializazio kasuak eta 5.1 artikuluan aurreikusitakoa bete arte toki korporazioetako kideen ordainsarien inguruan sortutako zalantzak. Izan ere, 5.1 artikuluan ordainsari horien gehienekoak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru arauan zehaztuko direla xedatzen da; eta hori zehaztu arte hainbat zalantza egon ziren. Edonola ere, zalantza horiek konpondu ziren 1/2015 Foru Dekretu-Araua onartu zenean, txosten honen hurrengo puntuan azaldu bezala.

Hala ere, egia da foru arauan aurreikusitako zenbait neurri ez dela oraindik aplikatu, ez delako gertatu

Presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa), relativo al plazo de pago a proveedores.

- El artículo 4 (modificación de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa) y la disposición adicional única (mecanismo especial de pago a proveedores), referidos al régimen de endeudamiento de las entidades locales.

- El artículo 5 (retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales y del personal al servicio de la Administración Local y su sector público).

- Y el apartado 2 del artículo 6 (solicitud y emisión de informes para el ejercicio de nuevas competencias distintas de las propias y de las atribuidas por delegación), que define lo que no constituye el ejercicio de nuevas competencias a los efectos previstos en dicho artículo.

Por su parte, en el recurso contencioso-administrativo nº 476/2015, la Administración del Estado solicita que se declare la nulidad de los dos últimos tramos (municipios de 2.001 hasta 5.000 habitantes y municipios de hasta 2.000 habitantes) de la tabla contenida en el artículo único del Decreto Foral-Norma 1/2015, porque, según la demandante, permite que, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, las y los miembros de las corporaciones locales de municipios de población inferior a 1.000 habitantes perciban retribuciones en régimen de dedicación exclusiva, cuando en la legislación básica estatal sólo cabe la dedicación parcial en estos casos.

**4.- Problemas en la aplicación de la Norma Foral 13/2014.**

Hasta la fecha no se han detectado problemas significativos en la aplicación de la Norma Foral 13/2014, salvo los casos de judicialización ya expuestos en el punto 3 y las dudas generadas en torno a las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales en tanto no se dio cumplimento efectivo a lo dispuesto en el artículo 5.1, que remite la determinación de los límites máximos de dichas retribuciones a la norma foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa de cada ejercicio. En todo caso, estas dudas se solventaron con la aprobación del Decreto Foral-Norma 1/2015, tal y como se explica en el siguiente punto del presente informe.

No obstante, también es cierto que algunas de las medidas contempladas en la norma foral no han

ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F 2016-01-29T13:10:25Z

horien bitartez aurre egin beharreko kasuistikarik. Adibidez: Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren atxikipena, sozietate berriak sortzea, ingerak edo erreparoak...

podido ser aún aplicadas, dado que no se ha producido la casuística a la que se suponía que tenían que hacer frente. Por ejemplo: la retención del Fondo Foral de Financiación Municipal, la creación de sociedades, los resultados de los controles, reparos...

**5.- Sortutako ondorioak eta arauaren benetako betetzea.**

**5.- Efectos producidos y cumplimiento efectivo de la norma.**

*5.1.- 1. artikulua. Toki araubideko foru sistemaren berezitasuna:* Itziarko toki entitate txikia eratzea.

*5.1.- Artículo 1. Singularidad del sistema foral de régimen local*: la constitución de la entidad local menor de Itziar.

2015/01/29ko GAOn (18. zk.), hau da, 13/2014 Foru Araua indarrean jada, argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretua, xedatu zuena Deba udalerrian Itziarko toki entitate txikia eratzea, Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren III. tituluan eta 13/2014 Foru Arauaren 1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eratu ere; hau da, nortasun juridiko propioa eta toki entitate izaera dauzkala, aipatu 1. artikuluaren 5. atalean espresuki jasotzen den moduan. Hortaz, 13/2014 Foru Arauaren hitzaurrean bertan jasotzen denez, gai honetan foru arauketak 27/2013 Legeak sartutako aurreikuspenen aplikazioa desplazatzen du udalerria baino lurralde eremu txikiagoko entitateei dagokienez: estatuko legearen aurreikuspen horien arabera, etorkizunean ez baitute ia gehiago toki entitate izaera edukiko; eta nortasun juridikorik eta jarduteko gaitasunik gabeko formula edo modalitateak izango baitira, administrazio kudeaketa era deskontzentratuan antolatzeko, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko araudian aurreikusitako printzipioei jarraikiz aukerarik eraginkorrena izateagatik sor daitezkeenak.

Vigente la Norma Foral 13/2014, en el BOG nº 18 de 29/01/2015 se publicó el Decreto Foral 3/2015, de 27 de enero, que dispuso la creación de la entidad local menor de Itziar en el término municipal de Deba, de conformidad con lo previsto en el título III de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, de demarcaciones municipales de Gipuzkoa en relación con el artículo 1 de la Norma Foral 13/2014; esto es, "con personalidad jurídica propia y condición de entidad local", tal y como reconoce expresamente el apartado 5 de dicho artículo 1. Por tanto, tal y como se afirma en el preámbulo de la Norma Foral 13/2014, la regulación foral ha desplazado en esta materia la aplicación de las previsiones que la Ley 27/2013 introdujo en relación con las entidades de ámbito territorial inferior al municipio, previsiones estatales que les niega a futuro la condición de "entidad local" que hasta entonces sí les reconocía y las regula como meras fórmulas o modalidades de gestión administrativa desconcentrada, carentes de personalidad jurídica y de capacidad de obrar, cuya creación sólo es posible si resultan la opción más eficiente de acuerdo con los principios previstos en la normativa de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

*5.2.- 2. artikulua. Aldatzea 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.*

*5.2.- Artículo 2. Modificación de la Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa.*

- Bat.- Plan ekonomiko-finantzarioak: 13/2014 Foru Araua indarrean sartu denetik guztira 5 udalek onartu dituzte plan ekonomiko-finantzarioak 1/2013 Foru Arauaren 5.1 artikuluan oinarrituta.

- Uno.- Planes económico-financieros: desde la entrada en vigor de la Norma Foral 13/2014, 5 ayuntamientos han aprobado planes económico-financieros en base a lo establecido en el artículo 5.1 de la Norma Foral 1/2013.

- Bi.- Gastuaren arauaren ez-betetzea eta planaren ordez komunikazio bat aurkeztea: 4 udalek aplikatu dute. Dena den, kontuan izan behar da aukera bat dela, eta kasu gehiago egon litezkeela jakinarazi ez dizkigutenak mailegu baten beharrik ez zegoelako.

- Dos.- Incumplimiento de la regla de gasto y sustitución del plan por una comunicación: son 4 los ayuntamientos que lo han aplicado. Sin embargo, hay que tener en cuenta que se trata de una opción y que podría haber más casos que no se nos han comunicado por no haber necesitado préstamo.

2016-01-29T13:10:25Z
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

- Bost.- Birdimentsionatze neurrien aplikazioa geroratzea: bi eskaera izan dira.

  Dena den, neurri honen benetako eragina nabarmenagoa izango da 2015eko ekitaldiaren itxieraren ondorengo hilabeteetan, momentu horretan egiaztatu beharko delako foru araua indarrean sartu denetik bi ekitaldi kontable jarraietan ustiaketa emaitza negatiboa izan den edota desoreka finantzarioa dagoen.

- Cinco.- Aplazamiento de la aplicación de las medidas de redimensionamiento: ha habido 2 solicitudes.

  No obstante, el efecto real de esta medida será más patente en los meses posteriores al cierre del ejercicio 2015, ya que será en ese momento cuando habrá que verificar si se ha producido desequilibrio financiero o resultados negativos de explotación en dos ejercicios contables consecutivos desde la entrada en vigor de la norma.

5.3.- 3. artikulua. *Aldatzea 2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzkoa.*

5.3.- Artículo 3. *Modificación de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

- Hiru.- Hornitzaileei ordaintzeko epea: txosten honen eranskinean azaltzen da.

- Tres.- Plazo de pago a proveedores: en el anexo al presente informe.

5.4.- 4. artikulua. *Aldatzea 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.*

5.4.- Artículo 4. *Modificación de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.*

- Hiru.- Kreditu eragiketak eta bermeak emateari buruzko baimenak eta horien berri hartzea.

  Foru araua indarrean sartu denetik guztira 14 espediente izapidetu dira: 2014ko ekitaldian, 5; eta 2015ean, berriz, 9. Taula honetan azaltzen da:

- Tres.- Autorización y toma de razón de operaciones de crédito y concesión de garantías.

  Desde la entrada en vigor de la norma se han tramitado 14 expedientes: 5 correspondientes a 2014 y 9 al 2015. El detalle es el siguiente:

| *Ekitaldia* / Ejercicio | *Baimena* / Autorización | *Komunikazioa* / Comunicación | *Guztira* / Total |
|---|---|---|---|
| 2014 | 2 | 3 | 5 |
| 2015 | 5 | 4 | 9 |

- Bost.- Finantza entitateek eta gainerako administrazio publikoek kreditu eragiketei buruzko informazio ematea:

  Guztira 12 informazio bidalketa izan dira: 11 finantza entitate eta administrazio publiko 1.

- Cinco.- Suministro de información sobre operaciones de crédito por parte de entidades financieras y otras administraciones públicas:

  En total se han producido 12 remisiones de información: 11 entidades financieras y 1 de una administración pública.

5.5.- 5. artikulua. *Toki korporazioetako kideen eta Toki Administrazioaren eta bere sektore publikoaren zerbitzupeko langileen ordainsariak.*

5.5.- Artículo 5. *Retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales y del personal al servicio de la Administración Local y su sector público.*

5.1 artikuluan ezartzen denez, asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzeko urteroko foru arauan zehaztuko dira. Aurreikuspen hori ondorengo 2 arau xedapen hauen bidez gauzatu da:

De conformidad con lo establecido en el apartado 1 del artículo 5, los límites máximos totales que pueden percibir las y los miembros de las corporaciones locales por todos los conceptos retributivos y asistencias se determinarán en la norma foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa de cada ejercicio. Dicha previsión se ha

2016-01-29T13:10:25Z
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

- 2015eko ekainaren 30eko 1/2015 Foru Dekretu-Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2015. urterako Aurrekontu Orokorrak ez onartzeak eta, horren ondorioz, luzatutako aurrekontua izateak eraginda eman zena: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateek korporazioetako kideen ordainsariak finkatzeko oinarri gisa erabiltzeko arau tresna izan zezaten 2015eko uztailaren 1etik aurrera (hau da, estatuko araudiak ezarritako muga-eguna). Hain justu, 1/2015 Foru Dekretu-Araua uztailaren 1eko GAOn (123. zk.) argitaratu zen, eta egun horretan bertan jarri zen indarrean.

- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2016. urterako aurrekontu orokorrak onartzeko 2015eko abenduaren 23ko 8/2015 Foru Arauaren seigarren xedapen gehigarria (abenduaren 30eko GAO, 249. zk.): aurrekontu luzatuko egoera gainditu ostean, 13/2014 Foru Arauaren 5.1 artikuluan espresuki jasotako arau tresna espezifikoaren bidez zehaztu dira ordainsarien gehieneko mugak. Edonola ere, 1/2015 Foru Dekretu-Arauak ezarritako muga berberak dira, dagozkion egokitzapenekin.

Ordainsarien gehieneko mugak zehazterakoan EUDELek egindako proposamena hartu da aintzat: hain zuzen, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioetan arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzeak duen foru berezitasunari buruzko 2015eko otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauak (4. artikulua) eta Bizkaiko toki korporazioetako kideen ordainsariengatik eta bertaratzeengatik jaso dezaketenaren gehieneko mugak onartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko ekainaren 9ko 81/2015 Foru Dekretuak jaso bezala.

Muga horiek finkatuta, korporazio kideen dedikazio araubidea eta ordainsariak zehazteko erabakiak hartu dituzte gure lurraldeko toki entitate ezberdinek. Horri dagokionez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko bigarren seihilekoan argitaratutako udal erabakiak ikusita, ondorio hauek atera daitezke:

materializado mediante las siguientes 2 disposiciones normativas:

- Decreto Foral-Norma 1/2015, de 30 de junio, que se dictó como consecuencia de la falta de aprobación de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2015, con la consiguiente prórroga presupuestaria, y con la finalidad de dotar a las entidades locales de nuestro territorio del instrumento normativo que les sirviera de base para concretar las retribuciones correspondientes a las y los miembros de sus respectivas corporaciones a partir del 1 de julio de 2015, fecha límite fijada por la normativa estatal. Precisamente, el Decreto Foral-Norma 1/2015 se publicó en el BOG nº 123 del día 1 de julio y entró en vigor ese mismo día.

- Disposición adicional sexta de la Norma Foral 8/2015, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2016 (BOG nº 249, de 30 de diciembre): superada la situación de prórroga presupuestaria, la determinación de los límites máximos de las retribuciones se ha realizado mediante el instrumento normativo específicamente previsto en el artículo 5.1 de la Norma Foral 13/2014, siendo el contenido el mismo que en el Decreto Foral-Norma 1/2015, con las adaptaciones necesarias.

A la hora de determinar los límites máximos de las retribuciones se ha tenido en cuenta la propuesta realizada por la asociación de municipios vascos EUDEL, acogida también por la Norma Foral 4/2015, de 11 de febrero, sobre la singularidad foral en la aplicación de las medidas de racionalización y sostenibilidad de la administración local en el Territorio Histórico de Álava (artículo 4) y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 81/2015, de 9 de junio, por el que se aprueban los límites máximos de retribuciones y asistencias de los miembros de las corporaciones locales de Bizkaia.

Una vez establecidos los límites, las distintas corporaciones locales han ido adoptando los respectivos acuerdos sobre la fijación del régimen de dedicación y retribuciones de sus miembros. Vistos los acuerdos que han sido objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el segundo semestre de de 2015, cabe concluir lo siguiente:

2016-01-29T13:10:25Z
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

- Erabaki horiek guztiak bat datoz 1/2015 Foru Dekretu-Arauak zehaztutako mugekin.

- Toki korporazio batzuek 1/2015 Foru Dekretu-Araua argitaratu eta indarrean jarri baino lehen hartu zuten erabakia. Edonola ere, kasu guztietan bat datoz aipatu foru dekretu-arauarekin, EUDELek egindako proposamenean oinarritzen baitira.

- 1.000 biztanletik beherako udalerrietako toki korporazioetan, bi egoera hauetakoren bat ematen da: ez dago dedikaziodun kiderik; edota kideren bati (alkateari edo alkateordeari) dedikazio partziala onartzen zaio, %20-%50 bitartekoa.

*5.6.- 6. artikulua. Berezko eskumenak eta eskuordetzan emandakoak ez diren eskumen berriak erabiltzeko txostenak eskatzea eta egitea.*

Ez da eskatu bikoiztasunik ezari buruzko txostenik eskumen berriak erabili ahal izateko.

Finantza iraunkortasunari buruzko txostenei dagokienez, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak 23 eskaerari erantzun die:

- Txosten eskaera 1, udalak herri eskola handitzeko proiektua gauzatzeko (horren berri hartuta 2015eko martxoaren 31n).

- 22 txosten eskaera, beste hainbeste udalenak, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza baten onuradunak izateko.

*5.7.- Xedapen gehigarri bakarra. Hornitzaileei ordaintzeko mekanismo berezia.*

Behin bakarrik aplikatu da. Arrazoia izan liteke bakarrik aplikagarria zelako foru araua indarrean sartu zenetik 6 hilabeteko epean; hau da, 2015eko maiatzaren 19a arte.

**6.- Lortutako helburuak eta horien eta proposatutako helburuen arteko lotura.**

Arauaren benetako aplikazioak (txosten honen aurreko puntuan azaldu da) gure lurraldeko Toki Administrazioan foru berezitasuna noraino iristen den erakusten du, eta toki autonomia bermatzeko trataera propioa suposatzen du. Ildo horretatik, lortutako

- Todos ellos se ajustan a los límites fijados en el Decreto Foral-Norma 1/2015.

- Algunas corporaciones locales adoptaron el acuerdo antes de la publicación y entrada en vigor del Decreto Foral-Norma 1/2015, no obstante lo cual se ajustan a lo establecido en el mismo, puesto que tomaron como base la propuesta de EUDEL.

- En las corporaciones locales de municipios de población inferior a 1.000 habitantes, o no hay ningún miembro con dedicación o se reconoce a algún miembro (al alcalde o alcaldesa, o a la teniente de alcalde) una dedicación parcial de entre el 20% y 50%.

*5.6.- Artículo 6. Solicitud y emisión de informes para el ejercicio de nuevas competencias distintas de las propias y de las atribuidas por delegación.*

No ha habido ninguna solicitud de emisión del informe sobre inexistencia de duplicidades para el ejercicio de nuevas competencias.

En cuanto al informe sobre sostenibilidad financiera, el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha respondido a 23 solicitudes:

- 1 solicitud de informe, para la ejecución por parte de un ayuntamiento del proyecto de ampliación del colegio público (toma de razón del 31 de marzo de 2015).

- 22 solicitudes de informe por parte de otros tantos ayuntamientos, para ser beneficiarios de una subvención concedida por el Gobierno Vasco.

*5.7.- Disposición adicional única. Mecanismo especial de pago a proveedores.*

Se ha aplicado en 1 único caso. Podría deberse a que su aplicación estaba limitada a 6 meses desde la entrada en vigor de la norma foral, es decir, hasta el 19 de mayo de 2015.

**6.- Objetivos alcanzados y correspondencia entre éstos y los objetivos propuestos.**

La aplicación efectiva de la norma (ya expuesta en el punto anterior de este informe) es reflejo del alcance de la singularidad foral en el ámbito de la Administración Local de nuestro territorio, y supone un tratamiento propio y garantista de la autonomía local.

2016-01-29T13:10:25Z
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

helburuak bat datoz proposatutako helburuekin.

Por tanto, los objetivos alcanzados se corresponden con los objetivos propuestos.

**7.- Araua garatzeko beharra.**

Toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehazteko 5.1 artikuluan aurreikusten den arau beharraz gain, 13/2014 Foru Arauak erregelamendu bidezko garapena aurreikusten du honako alor hauetan:

- 2. artikuluaren *lau* atalak (1/2013 Foru Arauari 5 ter artikulu berria –zerbitzuen kostu efektiboari buruzkoa- gehitzen dionak) aurreikusten duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko titularraren foru agindu bidez kostuen kalkulurako irizpideak finkatuko dira, kalitate adierazleak eta udalerriaren edo zerbitzuaren ezaugarrien arabera aplikatzekoak diren zuzenketa faktoreak barne.
- 3. artikuluaren *bost* atalari (21/2003 Foru Arauaren 70.4 artikulua –erreparoak- aldatzen duenari) jarraikiz, toki entitateko lehendakariak foru aldundiko kontrol organoari txostena eskatzeko prozedura, toki entitateko kontu-hartzaileak egindako erreparo txostenekin ados ez dagoen kasuetan jarraitu beharrekoa, erregelamendu bidez ezarriko da.
- 4. artikuluaren *hiru* atalak (11/1989 Foru Arauaren 53.1 artikulua –baimenik behar ez duten zorpetze eragiketak- aldatzen duenak) xedatzen duenez, baimen beharrik ez duten zorpetze eragiketen berri organo eskudunei emateko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.
- 4. artikuluaren *bost* atalari (11/1989 Foru Arauan 53 ter artikulu berria –kreditu eragiketei buruzko datu basea- sartzen duenari) jarraikiz, erregelamendu bidez zehaztuko da finantza entitateek beharrezkoa den informazioa bidaltzeko modua edo prozedura, Ogasun eta Finantza Departamentuak kreditu eragiketen datu basea osatu ahal izan dezan.
- Bukatzeko, 6.1 artikuluak berariaz ahalmentzen du Diputatuen Kontseilua: foru dekretu bidez ezar dezan udalerriek eskumen berriak erabili ahal izateko derrigorrezko txosten lotesleak eskatu eta

**7.- Necesidades de desarrollo normativo.**

Además de la remisión normativa prevista en el artículo 5.1 en relación con los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales, la Norma Foral 13/2014 contempla su desarrollo reglamentario en los siguientes aspectos:

- Según se prevé en el apartado *cuatro* del artículo 2 (que añade un nuevo artículo 5 ter -coste efectivo de los servicios- a la Norma Foral 1/2013), el titular del Departamento de Hacienda y Finanzas fijará, mediante orden foral, los criterios de cálculo de costes, que incluirán los indicadores de calidad y factores de corrección a aplicar según las características del municipio o servicio prestado.
- De conformidad con lo previsto en el apartado *cinco* del artículo 3 (que modifica el apartado 4 del artículo 70 –reparos- de la Norma Foral 21/2003), se establecerá reglamentariamente el procedimiento para que la presidencia de la entidad local solicite informe al órgano de control de la Diputación Foral de Gipuzkoa en caso de discrepancia con el informe de reparo elaborado por la Intervención local.
- De acuerdo con lo dispuesto en el apartado *tres* del artículo 4 (que modifica el apartado 1 del artículo 53 –operaciones de endeudamiento que no precisan autorización- de la Norma Foral 11/1989), se establecerá reglamentariamente el procedimiento para poner en conocimiento de los órganos competentes aquellas operaciones de endeudamiento que no precisen de autorización.
- Según se prevé en el apartado *cinco* del artículo 4 (que añade un nuevo artículo 53 ter –bases de datos con información de las operaciones de crédito concertadas por las entidades locales- a la Norma Foral 11/1989), se determinarán reglamentariamente los términos o el procedimiento de remisión por parte de las entidades financieras de la información que sea necesaria para mantener la base de datos de operaciones de crédito del Departamento de Hacienda y Finanzas.
- Para finalizar, el artículo 6.1 habilita específicamente al Consejo de Gobierno Foral para que, mediante decreto foral, establezca el procedimiento de solicitud y emisión de los

2016-01-29T13:10:25Z
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

Gipuzkoako Foru Aldundia

egiteko prozedura.

informes preceptivos y vinculantes para el ejercicio por parte de los municipios de nuevas competencias.

Gaur egunera arte ez da gauzatu adierazitako arau garapeneko aurreikuspen bat bera ere. Dena den, 1/2013 Foru Arauaren 5 ter artikuluan jasotzen den zerbitzuen kostu efektiboarekin lotuta, kostuen kalkulurako irizpideak finkatuko dituen foru agindua 2016ko lehenengo seihilekoan onartzea aurreikusten da.

Hasta la fecha no se ha materializado ninguna de estas previsiones de desarrollo normativo. En relación con el coste efectivo de los servicios regulado en el artículo 5 ter de la Norma Foral 1/2013, se prevé que la orden foral que fije los criterios de cálculo se apruebe durante el primer semestre de 2016.

**Donostian, 2016ko urtarrilaren 25ean.**

**Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatua,**

**Imanol Lasa Zeberio**

**Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua**

**Jabier Larrañaga Garmendia**

2016-01-29T13:10:25Z

ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F

ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F 2016-01-29T13:10:25Z

## ERANSKINA / Anexo

| | **Ordaindutako eragiketak /** Operaciones pagadas | | **Ordaindu gabeko eragiketak /** Operaciones pendientes | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Epea**/Período | **Ratioa**/Ratio | **Zenbatekoa**/Importe | **Ratioa**/Ratio | **Zenbatekoa**/Importe | **OBBE**/PMP |
| 2014-1.HH/Trim. | -3,68 | 33.663.903 € | -6,40 | 25.626.607 € | -4,86 |
| 2014-2. HH/Trim. | 2,32 | 81.935.628 € | 2,85 | 23.232.771 € | 2,44 |
| 2014-3 HH/Trim. | 3,24 | 117.422.572 € | 2,28 | 31.207.264 € | 3,04 |
| 2014-4 HH/Trim. | 3,27 | 143.922.929 € | -14,96 | 56.025.123 € | -1,84 |
| 2015-1.HH/Trim. | 6,37 | 92.446.134 € | 0,19 | 31.761.301 € | 4,79 |
| 2015-2 HH/Trim. | 1,14 | 123.321.853 € | 3,15 | 33.751.049 € | 1,57 |
| 2015-3 HH/Trim. | 2,14 | 124.569.032 € | 8,54 | 33.269.747 € | 3,49 |

**Obligazioaren betetze maila**/Cumplimiento de la obligación:

| **Epea**/Período | **Betetze maila** / Grado de cumplimiento | % |
|---|---|---|
| **2014 1. HH** /Trim. | 87 udal /ayuntamientos | %98 |
| **2014 2. HH**/Trim. | 87 udal /ayuntamientos | %98 |
| **2014 3. HH**/Trim. | 88 udal /ayuntamientos | %100 |
| **2014 4. HH**/Trim. | 87 udal / ayuntamientos | %98 |
| **2015 1. HH**/Trim. | 84 udal / ayuntamientos | %95 |
| **2015 2. HH**/Trim. | 82 udal / ayuntamientos | %93 |
| **2015 3.HH**/Trim. | 82 udal / ayuntamientos | %93 |

ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F 2016-01-29T13:10:25Z

*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura baieztatzeko, egiaztapen kode seguru hau sar dezakezu egoitza elektronikoa: www.gfaegoitza.eus*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: www.gfaegoitza.eus*
ORGG082AABB1-FE02-4CE1-B12A-B1F5CB98F40F 2016-01-29T13:10:25Z